

A.23. BESTE BATZUK / VARIOS

A.23.1. **Arabako Errioxako
Trikuharriak: El Montecillo
(Eskuernaga), La Chabola
de la Hechicera (Bilar) eta
Alto de la Huesera (Guardia)**

Zuzendaritza: J. Fernández Eraso; J. A.
Mujika Alustiza
Diru-laguntza emailea: Arabako Foru
Aldundia

A.23.1. **Dólmenes de La Rioja
Alavesa: El Montecillo
(Villabuena de Álava),
Chabola de la Hechicera
(Elvillar) y Alto de la
Huesera (Laguardia)**

Dirección: J. Fernández Eraso; J. A.
Mujika Alustiza
Subvención: Diputación Foral de Álava

The first of the excavations carried out began in the tomb located in the corridor of El Montecillo, discovered at the end of 2009 by Roberto Ibáñez. It is located in the town of Villabuena. During the excavation, it was discovered that the site had been sacked during ancient times. The headstone had fallen into the inside of the chamber, an event which probably prompted its abandonment. The site contains very few remains. The dolmen was dated at 3920 BP.

²⁵ González de Viñaspre, R. eta Uribarrena Urionagüena, P.; «Algunos datos sobre la epidemia de cólera de 1855» Herrian, 2 zenb., Vitoria-Gasteiz, 2008.

²⁵ González de Viñaspre, R. y Uribarrena Urionagüena, P.; «Algunos datos sobre la epidemia de cólera de 1855» en Herrian, núm. 2, Vitoria-Gasteiz, 2008.

This is a report on the archaeological interventions carried out on La Chabola de la Hechicera (Elvillar) and Alto de la Huesera (Laguardia) dolmens. In the former, which was extensively excavated in 1974 by J. M^o Apellániz, no results of interest were found, and work is now proceeding with a plan to enable public dissemination and information. Alto de la Huesera dolmen, on the other hand, had only been partially excavated. A prolonged archaeological intervention is therefore required, which will continue during the year 2011.

Jarraian azalduko ditugun esku-hartzeak Arabako Foru Aldundiak herrialde bereko monumentu megalitikoaren kontserbazio egoera ezagutzeko eta ebaluatzeko erakutsitako interesaren ondorio dira. 2010. urtean zehar jarraian deskribatuko ditugun hiru trikuharriak, hiruak Arabako Errioxan, induskatu eta ebaluatu ditugu aipatu hilobien arkitektura aztertze eta hainbat kanpaina arkeologikotan berreskuratutako hondakin materialen multzoa aztertze xedean. Esan dezagun, sarrera hau amaitze aldera, trikuharri hauei halako balioa eman baino lehen, EHUKo Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako (Gasteiz) Geologia Sailaren eta Topografia-Fotogrametria Arloaren laguntza jaso dugula, baita Arabako Foru Aldundiko Eraberritze Zerbitzuarena ere.

«El Montecillo» trikuharri sarreraduna (Eskuernaga)

Montecilloko hilobi sarreradun hau Villabuenako auzo Roberto Ibañezek aurkitu zuen 2009. urte amaieran. Aurkikuntzaren berri Arabako lurralde historikoko agintariei eman ostean, Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurrea Saileko kide Javier Fernández Erasori eta José Antonio Mujika Alustizari agindu zitzaizkien aipatutako eremua gainbegiratu eta aztertu zezaten. Arabako Foru Aldundiko Ondarea saileko eta Arabako Arkeologia Museoko teknikariekin batean lehen bisitaldi bat egin eta gero, 2010eko otsailetik urte bereko ekainera arte aipatutako arkitektura megalitikoaren induskatu genuen.

Honatz proposatutako helburuak:

- Historiaurreko trikuharria zela egiaztatzea.
- Megalitoaren arkitektura aztertzea.
- Tumuluaren eta hari erantsitako harri-pilaren neurriak zehaztea.
- Egitura induskatzea eta sendotzea.

Mahasti biren arteko mugan dago multzoa. Desitxuratuta dago, berriki osatutako harri-pila batek erdi estalita. Gainera, finka biak bereizten dituen horma batek ezkututzen du korridorerako sarrera. Zalantzarik gabe, egituraren bazter egoerak faboratu du haren kontserbazioa.

Honatz haren UTM koordenatuak 1:5000 eskalako mapan, 170-45 orrialdean: X= 527588,63 Y= 4711570,81.

El Montecillo trikuharria hilobi sarreradun bat da, bost ortostatok eratutako ganbera batez eta sarrera

Las intervenciones que se presentan a continuación son consecuencia del interés demostrado por la Diputación Foral de Álava para conocer y evaluar el estado de conservación de distintos monumentos megalíticos alaveses. A lo largo de 2010 se ha procedido a la excavación y evaluación de los tres dólmenes de La Rioja Alavesa que a continuación describimos con el objetivo de estudiar la arquitectura de dichos sepulcros, así como el conjunto de los restos materiales recuperados en las distintas campañas arqueológicas. Finalmente, como paso previo a su puesta en valor, se ha contado con la colaboración del Departamento de Geología y de la Sección de Topografía-Fotogrametría de la Escuela de Ingeniería Técnica Industrial y Topográfica (Vitoria-Gasteiz) de la UPV/EHU, así como del Servicio de Restauración de la Diputación Foral de Álava.

Sepulcro de Corredor de «El Montecillo» (Villabuena de Álava)

El sepulcro de corredor del Montecillo fue descubierto por Roberto Ibañez, vecino de Villabuena, a finales del año 2009. Denunciado el descubrimiento ante las autoridades del Territorio Histórico de Álava se encargó a los miembros del Área de Prehistoria de la Universidad del País Vasco, Javier Fernández Eraso y José Antonio Mujika Alustiza, la revisión y estudio del citado lugar. Tras una primera visita realizada con los técnicos de Patrimonio de la Diputación Foral de Álava y del Museo Arqueológico de Álava se procedió, desde febrero de 2010 a junio del mismo año, a la excavación de dicha arquitectura megalítica.

Los objetivos propuestos fueron:

- Constatar su carácter dolménico y prehistórico.
- Estudiar la arquitectura megalítica
- Determinar la extensión del túmulo y lo que de añadido, como morcuero, presentaba.
- Proceder a su excavación y consolidación.

El conjunto se encuentra en una linde entre dos viñedos. Está deformado y medio cubierto por un morcuero de formación reciente. Además la entrada al corredor está oculta por un muro que separa ambas fincas. Sin duda esta situación marginal ha favorecido su conservación.

Sus coordenadas UTM en el mapa escala 1:5000, hoja 170-45: X= 527588,63; Y= 4711570,81.

El dolmen de El Montecillo es un sepulcro de corredor compuesto por una cámara formada por cinco

batez, soilik bi ortostato kontserbatu dituen sarrera batez, osatua.

Poligono itxurako ganbera 2,10 metro zabal da iparraldetik hegoaldera eta 2,35 zabal ekialdetik mendebaldera. Burualdeko lauza ganberaren barruko aldera jausia zegoen, eta beraz, baimena eskatu zitzaion Arabako Foru Aldundiko Ondarea Zerbitzuari indusketa lanek irauten zuten bitartean hura altxatzeko eta zut ipintzeko.

Sarrera gutxi gora-behera 2,30 metro luze zen. 0,80 metroko zabalerrari eusten dio, modu aski erregularrean, haren luzera guztian zehar. Aitzitik, 1,10 metro zabal da abiapuntuan, ganberaren ondoan. Ortostato bi baino ez ditu kontserbatzen, bata ganberatik abiatuta segituan eta bestea amaiera aldean.

Monumentua osatzen duten ortostatoen neurriak aldakorak dira ganberan, handiena 2,10 metro garai da eta txikiena 1,40 metro garai. Zabalera ere ez dira berdinak, 1,23 metro zabalena eta 0,80 metro estuena. Hautsita dago burualdeko lauza, eta egungo egoeran 1,60 metro garai eta 0,85 metro zabal da. Txikiagoak dira sarrera eratzen duten ortostatoak, handiena, ganberatik gertuen dagoena, 1,50 metro garai eta 0,79 metro zabal da, eta txikiena, ganberatik urrutien dagoena, 1,00 metro garai eta 0,70 metro zabal.

Indusketa lanak nola egituraren barruko aldean hala hura estaltzen zuen harrizko metan eraman genituen aurrera. Xede horretan airetiko koadrikula bat antolatu eta geruzen arabera altxa genituen harriak eta lurrak. Laukiak kartografiara bildu eta denei argazkiak egin genizkien.

Ortostatoen oinetaraino induskatu genuen nola ganberan hala sarreran.

Trikuharriaren multzoak zuzenean hartzen du atseden Arabako Errioxa osoan hedatzen diren oinarriko hareharrizko geruzetan, eta ganberaren barruan gutxi gora-behera 0,35 metro sakon zen krater bat ireki zuten, segur asko hileta ganberaren edukiera emendatzeko xedean.

Hareharrizkoak dira hileta izaerako arkitektura hau osatzen duten ortostatoak, eta multzoa altxatzen den ingurutik ekarriak dira denak.

Hareharrien eta haien higaduratik etorritako hareen metaketak osatuta dago tumulua. Ez da egitura simetriko bat, mendebalderantz luzatu egiten baita eta nola hegoaldean hala ekialdean desmuntatua baitago, segur asko hari leku egiten dion mahastia egokitzeko lanetan desmuntatua. Harri-pila gisa baliatuta izan denez, goratuta dago ezberrik gabe.

Gure esku-hartzean zehar egiaztatu genuen trikuharria segur aski aspaldidanik hustuta zegoela. Horrengatik kontserbatu dira hain hondakin gutxi.

ortostatos y un corredor del que sólo se conservan dos.

La cámara de forma poligonal presenta unas dimensiones de 2'10 metros de anchura de norte a sur por 2'35 metros de este a oeste. La losa de cabecera estaba caída en el interior de la cámara por lo que se requirió al Servicio de Patrimonio de la Diputación Foral de Álava para proceder a su alzado y sustentación en cuanto duraran los trabajos de excavación.

El corredor presenta una longitud aproximada de 2'30 metros. Su anchura es de 0'80 metros de forma más o menos regular por toda su longitud. Sin embargo en el inicio junto a la cámara alcanza 1'10 metros. Solamente conserva dos ortostatos, uno en su inicio desde la cámara y otro al final.

Las dimensiones de los ortostatos que componen el monumento oscilan en la cámara entre los 2'10 metros de altura del ortostato mayor y 1'40 del más pequeño. Sus anchuras varían, del mismo modo, entre 1'23 metros. La mayor, y 0'80 la más estrecha. La losa de cabecera está rota y en su estado actual alcanza 1'60 metros de altura por 0'85 de anchura. Los ortostatos que configuran el corredor son de menores dimensiones, el mayor, el más próximo a la cámara, mide 1'40 metros de altura por 0'79 de anchura, el menor, el más alejado, 1'00 de altura por 0'70 de anchura.

Los trabajos de excavación se realizaron tanto en el interior de la estructura como en el galgal que la cubría. Para ello se instaló una cuadrícula aérea y se procedió al levantamiento de piedras y tierra por capas. Cada una de ellas fue cartografiada y fotografiada.

La excavación se realizó hasta la base de los ortostatos tanto en la cámara como en el corredor.

El conjunto dolménico reposa directamente sobre los estratos areniscos de base, comunes en toda la Rioja Alavesa, y en el interior de la cámara se practicó un cráter de unos 0'35 metros de profundidad con el fin, probablemente, de aumentar la capacidad de la cámara funeraria.

Todos los ortostatos que conforman la arquitectura funeraria son de arenisca y proceden del mismo entorno en el que se levanta el conjunto.

El túmulo está formado por acumulaciones de piedras de arenisca y arena procedente de la degradación de la anterior. No resulta una estructura simétrica ya que hacia el oeste se prolonga y tanto al sur como al este está desmontada probablemente durante los trabajos de acondicionamiento del viñado en el que se encuentra. Sin duda está recrecido al haber sido utilizado como morcuero.

Durante la intervención se pudo comprobar que el dolmen estaba saqueado desde antiguo, con toda probabilidad. Por ello se han conservado muy pocos



Ezkerretara, El Montecillo trikuharria indusketa lanetan zehar Eskuinetara, El Montecillo trikuharria induskatzen hasi baino lehen.



A la izquierda, Dolmen de El Montecillo en proceso de excavación. A la derecha, El Montecillo antes de su excavación.

Gainera, hareharrien gainean egokituta egonik, hezur hondakin ia guztiak galdu dira betikoz.

Berreskuratutako hondakin urrien artean, aipagarriak dira giza hezurak, tartso hezurak, hortz batzuk eta norbanako gazte bati dagokion garondoko orno bat. Beste hondakin arkeologikoei dagokienez, aipagarriak dira kanpai itxurako zeramikazko zati bi, edontzi bati eta kazola bati dagozkionak hurrenez hurren.

Bestalde «terra sigillata hispanica» moldeko bi puska txiki eta ikatzak erregistratu genituen burualdeko lauzaren azpian..

Trikuhariaren multzoak zuzenean hartzen du atsenden oinarriko hareharrizko geruzen gainean, eta ganberaren barruan gutxi gora-behera 0,35 metro sakoneko zulo bat egin zuten hileta ganberaren edukiera emendatzeko segur asko.

Berreskuratutako hezur zati bat C.14ren bidez datatzeko baliatu genuen. Lagina Miami (AEB) Beta laborategietara igorri genuen, eta emaitza honakoa izan zen: 3920±40 BP.

Beraz, Kalkolito Aroaren amaieraren eta Brontze Aroaren hasieran kokatzen dugu.

El Montecillo trikuharri sarreraduna da, ezaugarrietan Arabako Errioxan dauden beste zazpien antzekoa.

Egitura oso hondatuta dago behin eta berriz arpilatua izan delako, segur asko antzinaroan, eta harri-pila bezala baliatua izan delako.

Ez dakigu monumentu hau noiz eraiki zuten, indusketak eskaintako datuak ez baitira kontu hori argitzeko modukoak. Hala eta guztiz ere, Ciempuzuelos moldeko kanpai itxurako zeramika zatiak, Kantabriako mendialdeko harpeetako estratigrafia egonkorretan aurkitutako zeramikien

restos. Además al estar asentado sobre arenisca los restos óseos han desaparecido casi en su totalidad.

Entre pocos restos recuperados destacan huesos humanos, del tarso, algunas piezas dentarias así como una vértebra cervical de un individuo juvenil. Por lo que a otro tipo de resto arqueológico se refiere se recuperaron dos fragmentos de cerámica de tipo campaniforme que se corresponden a un vaso y una cazuela respectivamente.

Además se recuperaron dos pequeños fragmentos de «terra sigillata hispánica» y carbones bajo la losa de cabecera.

El conjunto dolménico reposa directamente sobre los estratos areniscos de base y en el interior de la cámara se practicó un cráter de unos 0'35 metros de profundidad con el fin, probablemente, de aumentar la capacidad de la cámara funeraria.

Uno de los restos óseos recuperados se utilizó para la datación mediante C-14. La muestra fue enviada al laboratorio Beta de Miami (USA). El resultado obtenido fue: 3920±40 BP.

Ello nos sitúa a finales del Calcolítico e inicios de la Edad del Bronce.

El Montecillo es un dolmen de corredor de características similares a los otros siete existentes en la Rioja Alavesa.

Su estructura está muy alterada por saqueos, posiblemente realizados en época antigua, y por haber sido utilizado como morcuero.

Desconocemos cuándo fue erigido el monumento pues los datos aportados por la excavación no resultan clarificadores. Sin embargo al haber aparecido fragmentos de cerámica campaniforme de tipo Ciempuzuelos, muy similar en su factura a otros localizados en estratigrafía estable en los abrigos de la Sierra de

antzekoak oso, aintzat hartuta, Kalkolito Aroa eta Lehen Brontze Aroa bitartean erabiltzeko moduan egongo zela esango dugu.

Ganberaren barruko aldera jausitako burualdeko lauzaren azpian erromatarren garaiko zeramika puskak aurkitu genituela kontuan izanik, baliteke egitura hau aldi klasikoaren ostean kolapsatu izana, eta baliteke garai hartan arpilatu izana hileta multzoa.

La Chabola de la Hechicera trikuharri sarreraduna (Bilar)

Chabola de la Hechicera hilobi sarreraduna 1935. urtean aurkitu zuen J.M. Barandiaranek, eta hurrengo urtean esku-hartze txiki bat eraman zuen burura bertan. 1947. urtean lehenengo indusketa arkeologikoa egin zuten Carlos Sáez de Tejada, Álvaro de Cortázar eta Domingo Fernández Medranok. Arkeologiari buruzko XIV. Kongresu Nazionalak trikuharri honetan esku-hartze arkeologikoa burura eramateko parada eskaini zuen. 1974. urteko abuztuan zehar induskatu zuten eta monumentua lehengoratzeko lanei ekin zieten gero, hauek nagusiki irailean burutuak. Hurrengo hilabeteetan, 1975. urtearen hasierara arte, monumentua txukuntzeko eta sendotzeko lanak amaitu zituzten, eta egun eskaintzen duen itxuraren jabe bihurtu zen.

2010eko ekainean zehar esku-hartze arkeologiko bat eraman dugu burura eremu mugatu batean monumentuaren egungo egoeraren berri izateko, azkeneko 35 urteetan obra txiki batzuk egin baitira haren inguru hurbilean (hormaren eta erretenaren eraikuntza eta beste lan batzuk) ondoan garatzen diren laborantza lanetatik babesteko eta ondare ondasun hau ezagutarazteko xedean.

Honatx esku-hartze honek bila zituen helburu nagusiak:

- Tumuluaren iparralde-hegoaldeko eta ekialde-mendebaldeko diametroak mugatzea elementuaren morfologia ez simetrikoa egiaztatzeko eta eraiki zenetik gaur egunera arte jasan ahal izan dituen kalteak neurtzeko.
- Tumuluaren eraikuntza egituren ezaugarriak eta elkarren gainean egokitutako tumuluaren kontserbazio egoera ezagutzea, eta haiek bertatik bertara ikusi eta bereizi ahal izatea.

Adierazitako helburuak lortze aldera, bi erreten ireki genituen, biak gutxi gora-behera ekialdetik mendebaldera. Erreten hauek korridorearen alde banatan induskatu genituen, ganbera ukituz ia, egun ganbera hau inguratzen duen tumulu handiaren gainean egokituriko tumulu txikia lekuko gisa utzirik. Erretenak bi metro zabal ziren, gutxi gora-behera 9 metro luze eta 50-40 cm bitarte sakon. Esku-hartze honetan ez genuen tumulu-

Cantabria, pudo estar en uso, al menos, en un periodo que comprende el Calcolítico y los comienzos de la Edad del Bronce.

Al haber encontrado los fragmentos de cerámica romana bajo la losa de cabecera, caída en el interior de la cámara, es posible que el colapso de la estructura se produjera con posterioridad a la época clásica y tal fuera en aquel momento cuando se saqueó el conjunto funerario.

Sepulcro de Corredor de La Chabola de la Hechicera (Elvillar)

El sepulcro de corredor de la Chabola de la Hechicera fue descubierto en 1935, iniciando J. M. de Barandiaran, al año siguiente, una pequeña intervención. En 1947 se realizó la primera excavación arqueológica por parte de Carlos Sáez de Tejada, Álvaro de Cortázar y Domingo Fernández Medrano. Finalmente, la celebración del XIV Congreso Nacional de Arqueología ofreció la ocasión para que se practicase en él una intervención arqueológica. Durante el mes agosto de 1974 fue excavado y se comenzó su restauración, cuya labor fundamental se realizó el mes de septiembre. Los meses siguientes, hasta primeros de 1975, se prolongaron los trabajos de acondicionamiento y consolidación confiriendo al monumento su aspecto actual.

Durante el mes de junio de 2010 se ha practicado una intervención arqueológica en un área limitada con el fin de conocer el estado de conservación actual del monumento, ya que entre ambas fechas se realizaron modificaciones (construcción de un muro, foso, etc.) en su entorno más próximo con el fin de protegerlo de las actividades agrícolas que se desarrollaban en el terreno contiguo, así como para proceder a la divulgación de este bien patrimonial.

Los objetivos inmediatos fundamentales han sido los siguientes:

- Delimitar los diámetros norte-sur y este-oeste del túmulo con el fin de valorar su morfología asimétrica y el grado de afección que se hubiera podido producir a partir de su construcción.
- Conocer las características de las estructuras constructivas del túmulo y el estado de conservación de los túmulos superpuestos, y proceder a su documentación visual.

El procedimiento utilizado para ello ha sido abrir dos zanjas, aproximadamente en dirección este-oeste. Estas se localizan una a cada lado del corredor, en su contacto con la cámara y con el testigo del pequeño túmulo superpuesto al gran túmulo y que actualmente rodea a la cámara. Las zanjas tenían una anchura de dos metros de ancho, una longitud de unos 9 m y una profundidad variable entre los 5-40 cm. En esta inter-

ra biltzen diren blokeetatik bakar bat ere altxatu, tumuluaren gainazala estaltzen duen sedimentua baizik ez (bahetutako lurra eta gisakoak).

Erreteren aztertzen amaitu eta gero, beste bi erreten ireki genituen paraleloan, tumuluaren ekialdeko ezponda pikoan, tumuluaren beraren egitura konplexua agerian uzteko moduan.

Bestalde, bi zundaketa txiki ireki genituen ganberaren gibelaldean, bat egungo zuloaren kanpoko aldean eta bestea zuloaren barruko aurpegitik 50 zentimetro-tara, tumulua noraino luzatzen zen ezagutzeko xedean.

Lan hauei esker ikuskera guztiz berria eskaintzen digu monumentu jakin honek, eta aldi berean trikuharrietako tumuluaren eraikuntzaren ezaugarri buruz gehiago jakiteko parada eskaintzen digu. Mazeletako gune lauen muturrak trikuharriak eraikitze leku gisa hautatzea oso arrunta da Euskal Herriko mendiko megalitismoan (Trikuaitzi I, etab.), eta hauxe da arrazoi bakarra monumentuaren alde batean edo bestean gertatzen diren garaiera aldeak azaltzeko. Trikuaitzi I monumentuan, esate baterako, mendebaldean ia bi metrokoa zen garaiera, beste aldean 70 cm-ko garaierara apenas iristen zen bitartean. Kasu honetan antzeko zerbait gertatzen da, batera hartuta tumuluaren altuera 3 metro-tara hurbiltzen baita ekialdetik eta hegoaldeko erreparatuz gero, baina iparraldetik begiratuta beheko tumulua ozta-ozta nabarmenduko zen bere ingurutik 50 cm-tan, baina haziz joan zen haren gainean gutxi gora-behera 150 cm-ko garaierako beste tumulu txiki bat egokitu zenean.

Hurrengo kanpainan eta tumuluaren egituraren azterketatik abiatuta, monumentua eraikitze prozesua zehaztea izango du gu helburu nagusietako bat.

Alto de La Huesera trikuharri sarreraduna (Guardia)

Trikuharri hau 1948. urtean aurkitu zuen Fernández Medrano jaunak «El Gancho» izenaz ezagutzen den lekuan; urte hartan bertan induskatu zuten. Hemen, La Chabola de la Hechicera aztarnategian bezala, kokalekuaren hautaketak –mazelako gune lau baten muturrean– berebiziko garrantzia du haren eraikuntzan eta paisaian nabarmentzeko xedean. Indusketa lan haiei zegokien memoriaren arabera hondakin material ugari geratu ziren agerian: mendebaldeko harri xabalaren ondoan, hainbat burezur oso, beste bat errautsekin, zeramikazko zatiak eta beste.

2010. urteko apirillean eta maiatzean zehar esku-hartze arkeologiko bat eraman genuen burura eremu mugatu batean, egungo monumentuaren kontserbazio egoera ezagutzeko xedean, azken hamarraldietan lan batzuk egin baitituzte haren inguru hurbilean (lursailen arteko bidea eta aspaldidanik garatutako laborantza lanak), monumentuari kalte egin ziezaioketen lanak.

Honatz esku-hartze honek bila zituen helburu nagusiak:

vección no se han levantado bloques integrados en el túmulo, únicamente el sedimento que cubre la parte superficial del túmulo (tierras cribadas, etc.).

Una vez finalizadas las zanjas se ha procedido a realizar otras dos paralelas en el pronunciado talud oriental del túmulo, lo que permite reconocer una compleja estructura tumular.

Por otra parte, también se han efectuado dos pequeños sondeos en la parte trasera de la cámara, uno al exterior del foso actual y otro a 50 cm de la cara interior del foso, con el fin de conocer hasta donde se prolongaba el túmulo.

De estos trabajos se obtiene una novedosa visión de este monumento en concreto, pero también enriquece notablemente nuestro conocimiento sobre las características constructivas de los túmulos dolménicos. La selección de extremos de rellanos de laderas como emplazamiento para la construcción de dólmenes es frecuente en el megalitismo de montaña del País Vasco (Trikuaitzi I, etc.), siendo ésta la razón que explica la diferencia de alturas en un lado o en otro. Por ejemplo en Trikuaitzi I la altura desde el lado oeste era de casi dos metros, mientras que desde el lado opuesto apenas alcanzaba los 70 cm. En este caso sucede algo parecido, la altura total de los túmulos se aproxima a los 3 metros si los observamos desde los lados este y sur, mientras que desde el lado norte el túmulo inferior, que apenas se elevaría sobre el entorno 50 cm fue acrecentado construyendo sobre él el pequeño túmulo superpuesto, de unos 150 cm de altura.

En la próxima campaña uno de los objetivos será concretar el proceso de construcción del monumento a partir del estudio de la estructura tumular.

Sepulcro de Corredor del Alto de La Huesera (Laguardia)

El dolmen fue descubierto en 1948 en la zona conocida como «El Gancho» por D. Fernández Medrano, procediéndose a su excavación ese mismo año. Además, aquí, como en la Chabola de la Hechicera, la selección del emplazamiento -el extremo de un rellano de ladera- tiene un papel fundamental en su construcción y en el objetivo de que destacase en el paisaje. Según la memoria de excavaciones se hallaron abundantes restos materiales: varios cráneos completos junto a la losa oeste, otro con cenizas, fragmentos cerámicos, etc.

Durante el mes de abril y mayo de 2010 se ha practicado una intervención arqueológica en un área limitada con el fin de conocer el estado de conservación actual del monumento, ya que en su entorno se realizaron hace unas décadas distintos trabajos (camino de la parcelaria, actividades agrícolas desde tiempo inmemorial) que podrían haberle afectado.

Los objetivos inmediatos básicos han sido los siguientes:

- Tumuluaren iparralde-hegoaldeko eta ekialde-mendebaldeko diametroak mugatzea elementuaren morfologia ez simetrikoa egiaztatzeko eta eraiki zenetik gaur egunera arte jasan ahal izan dituen kalteak neurtzeko.
- Tumuluaren eraikuntza egituren ezaugarriak eta haren kontserbazio egoera ezagutzeko.
- Ganberaren ingurua eta barruko aldearen parte bat induskatzea, monumentuaren atal hori sendotzeko eta lehengoratzeko xedean.
- Aurreko indusketa lanetan zehar aurkitu ez zuten korridore edo sarreraren presentzia/absentzia egiaztatzea.
- Delimitar los diámetros norte-sur y este-oeste del túmulo con el fin de valorar su morfología asimétrica y el grado de afección que se hubiera podido producir a partir de su construcción.
- Conocer las características de las estructuras constructivas del túmulo y su estado de conservación.
- Excavar alrededor de la cámara y parte del interior con el fin de consolidar y restaurar dicha parte del monumento.
- Verificar la existencia/ausencia de un corredor que no fue localizado durante las excavaciones anteriores.

Esku-hartze arkeologikoan zehar bi erreten ireki genituen ganberaren alde banatan, erretenak bi metro zabal eta gutxi gora-behera 8 metro luze, iparraldetik hegoaldera. Gisa honetan jatorrizko tumulua mugatu ahal izan genuen, azken urteetan haren iparraldea gutxi gora-behera 40 cm lodierako buztinezko geruzak estalita baitzegoen; buztin hauek bertan metatu zituzten egun alde honetan dagoen plataforma lautu zutenean, eta bertan metatu ere zuten 1948. urteko kanpoinan zehar ateratako lurren parte bat. Sedimentu hauek bahetuta giza hezur hondakin batzuk, idunekoa ale zenbait, zeramika zatiak eta harriaren landutakoak erregistratu genituen. Tumuluaren kanpoko aldean leundutako aizkora bat aurkitu genuen.

Hegoalderantz irekitako erretenean ikusten da nola tumulua beste zortzi metrotan luzatzen den. Alde honetan ez genuen material arkeologikorik ia bat ere aurkitu.

Laburbilduta, esan dezagun erreten hauen indusketak aukera eman digula monumentuaren aurreko beste ikuskera berri bat edukitzeko, izan ere, agerian geratu da gutxi gora-behera 20 metroko diametroa izango zuen tumuluaren presentzia, kareharrizko eta hareharrizko blokeez osatua. Altueran alde handiak hautematen zaizkio. Iparraldean ia 50 cm-ko garaierara ozta-ozta iritsiko zen bitartean, hegoaldean bi metrotik gorako garaierara helduko zen. La Chabola de la Hechicera trikuharrian bezala, nahiz eta hain nabaria ez izan, oso litekeena da trikuharri honek ere neurri apalagoko beste tumulu bat izana tumulu handiagoaren gainean egokituta, baina egun burualdearen hegoaldeko eta mendebaldeko harri xabalen gibelaldean baizik ez da kontserbatu hura. Zoritxarrez, mendebalderantz egiten duen gandor antzeko batek desitxuratzen du haren irudia.

Bestalde, burualdeko harri xabalen kanpoko aurpegia ia ukiturik induskatu genuen harriak beren tokian sendotzearen eta haien gainean estalkiko harria ipintzearen. Lan hauei esker zeramika zati batzuk berreskuratu genituen gainazaletik kontaktatzen hasita gutxi gora-behera 30 cm-ko sakonera mailan (seguru asko maila honek zehazten zuen tumuluko jatorrizko gaina-

Durante la intervención arqueológica se han practicado dos zanjas, una a cada lado de la cámara, de dos metros de anchura y unos 8 metros de longitud, en dirección norte-sur. Estas han permitido delimitar el túmulo original, que en fechas recientes en su lado norte había sido cubierto por unos 40 cm de arcilla, acumulados al tratar de horizontalizar la plataforma existente en la actualidad en ese lado, así como por depositar ahí parte de las tierras extraída durante la campaña de 1948. Su cribado permitió que se recuperaran algunos restos óseos humanos, varias cuentas de collar, fragmentos cerámicos y líticos. En la periferia del túmulo se localizó un hacha pulimentada.

En la zanja practicada hacia el lado sur el túmulo se prolonga a lo largo de otros ocho metros. Aquí apenas se ha recuperado material arqueológico.

En definitiva, la excavación de estas zanjas ha permitido tener una nueva visión del monumento, ya que permite constatar la existencia de un túmulo construido con bloques de caliza y arenisca que tendría un diámetro de unos 20 metros. Su altura es muy desigual. Mientras en el lado norte apenas alcanzaría los 50 cm, en el lado sur parece que tendría una altura superior a los dos metros. Igual que en el dolmen de la Chabola, aunque no acaba de ser tan evidente, es posible que este dolmen también hubiera tenido un segundo túmulo de menores dimensiones, conservado en la actualidad sólo en la parte trasera de las losas de cabecera de los lados sur y oeste, y superpuesto a un túmulo mayor. Lamentablemente, una especie de cresta longitudinal que la recorre hacia el oeste distorsiona su imagen.

Por otra parte, se ha procedido a excavar junto a la cara exterior de las losas de cabecera a fin de facilitar su consolidación y colocar sobre ellas la losa de cobertera. Estos trabajos permitieron recuperar algunos fragmentos cerámicos a unos 30 cm de profundidad respecto de la superficie (en lo que probablemente fue la superficie original del túmulo),

zala), baita metalezko (kobrezkoa edo brontzezkoa) gezi mutur bat ere.

Era berean, ganberan jardun genuen hura eratzten duten harriak mugitu ahal izateko. Xede horretan, lehenik ganberaren barrutik atera egin genuen bertara eroritako estalkiko harria, eta lan hau egokiro egiteko Arabako Foru Aldundiko Eraberritze Zerbitzuaren laguntza izan genuela esan behar dugu.

Estalkiko harri atera eta gero, ganberaren barruko aldea induskatu genuen. Deposituen goiko aldea 1948. urtean induskatutako sedimentuez osatuta zegoela ikusi genuen, behin bahetu eta gero berriro ere utzi baitzituzten sedimentu hauek ganberaren barrunbean. Sedimentu hauek bahetuta giza hezur txiki-txiki batzuk (gehienak 3 cm-tara ere iristen ez zirenak) berreskuratu genituen, horien artean falangeak, metatarsoak, metakarpak eta hortzak

además de una punta de flecha de metal (de cobre o bronce).

También se ha intervenido en la cámara para facilitar mover las losas que la conforman. Para ello, previamente, se extrajo del interior de la cámara la que fuera la losa de cubierta caída en su interior, contando para ello con la ayuda del Servicio de Restauración de la Diputación Foral de Álava.

Una vez extraída la losa se procedió a excavar el interior de la cámara. Se observó que la parte superior del depósito estaba constituida por sedimentos excavados en 1948 y que una vez cribados habían sido nuevamente depositados en su interior. Durante su cribado se han recuperado fragmentos óseos humanos de reducidas dimensiones, por lo general inferiores a los 3 cm, identificándose entre ellos falanges, metatarsianos o metacarpianos, piezas dentarias, e



La Huesera trikuharria.

Dolmen de La Huesera.

identifikatu genituela, baita tresna edo norbera apaintzeko elementuren bat ere. Gutxi gora-behera 40 cm lodi zen geruza hau altxa eta gero, blokeak azaltzen hasi ziren azalera osoan zehar, baita aurreneko hondakin antropologikoak ere (burezur zatiak), ganberako ukitu gabeko gunean geundela agerian utzirik. Pakete lodi hau ez zuten aurreneko esku-hartze arkeologiko hartan induskatu segur asko beldur egongo zirelako estalkiko harria ez ote zen mugituko eta hustutako sektorearen gainera eroriko.

2010. urteko esku-hartze honetan ere ez genuen ganbera erabat induskatzen amaitu, haren sarreran, azkenean ondo bereizi genuen korridorearen abiapuntuan, ugari direlako hezur hondakinak, itxura batean oinean metatzen direnak, tumulutik etorritako blokeek osatutako betegarri garrantzitsuak estalita. Behin-behineko lekuko gisa utzitako erretenean ageri diren giza hezurak ganbararen muturrean daude, korridoretik gertuko sektorean. Abenduaren 22an amaitu genuen indusketa kanpaina.

Betegarria sedimentu buztintsu-limotsuaz osatuta zegoen, hondatutako hareharri hondakinekin (ganbera osatzen zuten harri xabaletatik esfoliatutako zatiak), eta oso trinkoa zen substratuko hareharriaren disoluzioak sorraraziriko karbonatuen eraginez. Mendebaldeko harri xabalen oinetan (10L, 11L) nabarmen egiten zuen gora hareharri pusken dentsitateak. Eskuarki oso egoera txarrean eta hautsita zeuden giza hezurak hain sedimentu trinkoan txertatuta egoteak izugarri zaildu eta atzeratu zituen indusketa lanak eta hezurak bereizteko eta haien kokalekua dokumentatzeko lanak.

Ganbera poligonalaren ardatz nagusiaren neurriak gutxi gora-behera 300x280 cm-koak dira, eta jatorrian gutxi gora-behera 3 metro garai izango zela esan behar dugu. Harri guztiak zuzenean paleozoruaren gainean ipiniak direla ematen du, soilik mendebaldekoa dago, antza, erreten batean sartuta, baina ez dakigu erreten horien neurriak eta ezaugarriak zein ziren. Ganberako zorua ia guztiz horizontala zen, eta soilik hego-mendebaldeko angeluan nabari zen halako sakonune txiki bat.

El Alto de la Huesera trikuharriak giza hondakin ugari eskaini zituen aurreneko indusketa hartan. R. Riquet eta P. Rodríguez de Ondarrak egindako azterketan 11 burezur bereizi zituzten (bik aurpegia kontserbatzen zuten), baita beste 8 kopeta hezur, 35 goiko masaillezur eta 29 beheko masaillezur (13 gizasemeri, 14 emakumeri eta zehaztu gabeko beste bi laguni dagozkienak), gutxi gora-behera hirurogei izterrezur eta beste hezur txiki asko ere. Aipatu ikerlarien arabera eta hezur luzeak aintzat harturik, bertan 30 heldu egongo ziren ehortzirik, eta esneko hortzak kontserbatzen zituzten masaillezurrak aintzat harturik, beste 15 haur.

2010. urtean burura eramandako indusketan ikusi genuenez, gutxi gora-behera 35 cm lodi zen ukitu gabeko ehorketa paketea, eta ehortzitako asko kontser-

includo algún elemento industrial o de adorno personal. Una vez levantada esta capa de unos 40 cm comenzaron a asomar bloques en toda la superficie así como los primeros restos antropológicos (fragmentos de cráneo) que indicaban que estábamos en una zona intacta de la cámara. Este potente paquete no fue excavado durante la primera intervención arqueológica, probablemente por el temor a que la cubierta basculara y se desplomara sobre el sector vaciado.

En la intervención de 2010 tampoco se ha acabado de excavar totalmente la cámara ya que en su entrada, en contacto con el arranque del corredor que fue finalmente localizado, abundan los restos óseos, que se concentran aparentemente en la base, y que están cubiertos por un importante relleno de bloques procedentes del túmulo. Los huesos humanos que asoman en el corte que se ha dejado como testigo provisional corresponden al extremo de la cámara en su contacto con el corredor. La campaña de excavación se ha finalizado el 22 de diciembre.

El relleno se caracterizaba por la presencia de un sedimento arcilloso-limoso con restos de areniscas muy alteradas (trozos que se exfoliaban de las losas que conformaban la cámara), y muy compacto por los carbonatos generados por la disolución de la roca arenisca del sustrato. Al pie de las losas del lado occidental (10L, 11L) aumentaba de forma notable la densidad de los trozos de arenisca. El hecho de que los huesos humanos, que presentaban un elevado grado de fractura y de alteración, estuvieran embutidos en este sedimento tan compacto retrasó el normal desarrollo de la excavación, ya que dificultó notablemente excavar y delimitar los huesos a fin de documentar su posición.

Las dimensiones aproximadas de la cámara poligonal en sus ejes mayores se aproximan a 300x280 cm, siendo su altura original también de unos 3 metros. Todas ellas están colocadas directamente sobre el paleosuelo, y sólo una de las situadas en el lado occidental parece estar introducida en una zanja cuyas dimensiones y características desconocemos. El suelo de la cámara era casi horizontal y sólo en el ángulo suroccidental se observaba una ligera depresión.

El dolmen de El Alto de la Huesera había proporcionado abundantes restos humanos en la primera excavación. En el estudio realizado por R. Riquet y P. Rodríguez de Ondarra se contabilizaron 11 cráneos (dos de ellos conservaban la cara), además de 8 frontales, 35 maxilares superiores y 29 mandíbulas (pertenecientes a 13 hombres, 14 mujeres y 2 indeterminados), unos sesenta fémures, además de abundantes fragmentos menores. Dichos investigadores estimaban que el número mínimo de inhumados, atendiendo a los huesos largos, se elevaba a 30 adultos y el número de infantiles a 15, a partir de las mandíbulas que conservaban dientes de leche.

Durante la excavación practicada en 2010 el paquete de inhumación intacto tenía un espesor de unos 35 cm y conservaba numerosos inhumados, que Teresa

batzen zirela esan behar dugu; Teresa Fernández Crespok, behin-behineko izaera batez, gutxi gora-behera hogeita zazpi lagun egongo direla kalkulatu du. Kopuru handia izan arren, seguru asko ganberaren handiak lagundurik, ugari dira, partzialki bada ere, lotura anatomikoan dauden hezur hondakinak. Honek guzti honek esan nahi du ehorzketak egitean lehendik lurperatutako norbanakoen hezurrek artean halako loturaren bat (zurdak eta beste) kontserbatzen zutela, hezurak deslotu eta barreiatu zitezkeen galaraziz, eta ehorzketa aldi bien artean denbora tarte ez oso luzea joango zela. Nolanahi ere den, esan dezagun hezurren kontserbazio egoera oso kaskarra zela, oso higatuta zeudela, eta ganberara heltzen ziren artean sustraiak, behin puntu honetara iritsita, hezurren barrunbeetara sartzen zirela.

Harrizko tresnei dagokienez, trauskil landutako trapezio bat eta aurpegi biko eta ukitu lauko hamarren bat mutur, morfologia askotakoak, bereizi genituen. Bestalde, kronologiaren eta kulturaren ikuspuntutik hain zehatzak ez diren beste elementu batzuk jaso genituen: karrakagailu bat, xafla zati batzuk (horien artean igital bat) eta beste puska txiki batzuk.

Harrizko tresna hauekin batean ehundik gora apaingarri bereizi genituen, horien artean nagusi hezurrean lantzerka landutako disko itxurako aleak (uztai modukoak) eta beste harri mota batzuetan (kaltzita, arbela eta beste) landutako beste dozena ale, bestelako morfologiarekin.

Deigarria da ganbera induskatzeko lanetan zehar zeramikazko zati hain gutxi berreskuratuta izana. Ezaugarri esanguratsu hau errepikatu egiten da Erdi-Azken Neolito eta Lehen Eneolito aroko beste trikuharrietan, nola Arabako Errioxan (San Martín) hala mendialdeko trikuharrietan.

Metalezko elementuen artean aipagarri dira ganberaren kanpoko aldean (eta beraz ganberaren goiko aldean egindako ehorzketei dagozkien) aurkitutako bi objektu, azterketa xeheagoen zain gure ustez brontzezkoak direnak: zulakai edo aho-biko bat eta txorten eta hegalez hornituriko gezi mutur bat.

Bukatzeko, esan dezagun dozena erditik gora hezur, ez gizakienak, erregistratu genituela. Haietako batzuk ganbera zulo gisa erabili duten animalienak (azeriak, untxiak, karraskariak) izan litezke, baina gutxienez bi (diáfisi lodi eta hagin bana, seguru asko Bos bati dagozkionak) zalantzarik gabe utzi zituzten bertan hileta errituaren parte bezala.

Giza hezur batzuk luze gabe igorriko dira AMS sistemaren bidez datatuak izan daitezten. Guk uste dugu berretsi egingo dela trikuharria 4.800 BP inguruan eraiki zutena, eta lehen Kalkolito aro osoan zehar baliatu zutena, baita kanpai formako aldiaren zehar eta Brontze Aro aurreratuan ere.

Fernández Crespo, de forma provisional, calcula en torno a unos veintiséis individuos. A pesar de su elevado número, y favorecido probablemente por la amplitud de la cámara, han sido frecuentes las conexiones anatómicas parciales, en ocasiones amplias. El hecho de que se conservasen éstas indicaría que al practicarse las nuevas inhumaciones los huesos de los individuos enterrados con anterioridad todavía mantenían una ligadura (tendones, etc.) que impedía que se desunieran o se desparramaran, por lo que el tiempo transcurrido entre una y otra inhumación era relativamente breve. De todas maneras hay que subrayar que el estado de conservación de los huesos era muy delicado debido a su propia alteración, así como por la acción de las raíces de las encinas que se introducían en la cámara y una vez aquí en el interior de las cavidades óseas.

En la industria lítica se contabilizan un trapezio de retoque abrupto, y una decena de puntas de retoques planos bifaciales de diferente morfología. Además, se han recogido otros objetos menos característicos desde el punto de vista cronocultural: raspador, fragmentos de láminas (entre ellos una hoz) y otros trozos menores.

Junto a esas evidencias líticas podemos señalar la presencia de más de un centenar de elementos de adorno, entre los que predominan las cuentas discoideas biseladas de hueso (tipo arandelas) y otra docena de diferente morfología en distintas rocas (calcita, pizarra, etc.).

Es notoria la escasez de cerámica recuperada durante la excavación de la cámara, característica significativa ya señalada en otros dólmenes del Neolítico Medio-Final y Eneolítico Antiguo, tanto de la Rioja Alavesa (San Martín) como de los dólmenes de montaña.

En metal destacan dos objetos procedentes del exterior de la cámara (y, por tanto, correspondientes a inhumaciones producidas en la parte superior de la cámara), y que a falta de análisis consideramos de bronce, concretamente: un punzón o biapuntado y una punta de flecha de pedúnculo y aletas.

Finalmente, destaca la presencia de poco más de media docena de huesos no humanos. Algunos de ellos podrían proceder de animales (zorro, conejo, roedores) que han utilizado la cámara como madriguera, pero al menos dos (una gruesa diáfisis y molar, probablemente de Bos) han sido indudablemente aportados como parte del ritual funerario.

Próximamente se enviarán algunos huesos humanos para proceder a su datación por AMS que esperamos vendrán a ratificar que el dolmen fue construido en torno al 4.800 BP, y reutilizado de forma bastante continua durante todo el Calcolítico antiguo, así como durante la fase campaniforme y Edad del Bronce más avanzada.

J. Fernández Eraso; J.A. Mujika Alustiza